

KANBO HERRIA

Pirinio Atlantikoetako departamendua

ERABAKIEN AKTA

2021eko IRAILAREN 29ko

HERRI BILTZARRA

Bi mila eta hogeita bateko irailaren hogeita bederatzigarren egunean biltzera deiturik, herri biltzarra Christian DEVÈZE jaun auzapezaren lehendakaritzapean bildu da. Biltzarra arratseko 7etan hasi da.

Hor ziren: Christian Devèze auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku (19:55etik goiti), Corinne Othateguy, Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Carmen Gonzalez, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Jean-Paul Alaman, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Marie Aristizabal, Peio Etcheleku (19:55 arte), Jean-Jacques Lassus, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, herri kontseilariak.

Ahalordeak: Marie Aristizabal-ek Yolande Huguenard-i, Jean-Jacques Lassus-ek Vincent Goytino-ri, Bernadette Remeau-k Véronique Cadepond-Larronde-ri, Sébastien Carre-k Christian Devèze-ri, Nathalie Aïçaguerre-k Argitxu Hiriart-Urruty-ri, Amaia Beyrie-k Philippe Bacardatz-i, Michel Duthilleul-ek Lilian Hirigoyen-i.

– Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar hautatu dute saioko idazkari izateko.

55 – Olha eihera bideko lurren eskuratzea: eremu publikora pasatzea eta sailkatzea (Magis jaunak aurkeztua).

Orain urte zenbait, herriak errepide lanak egin zituen Olha eihera bidearen zabaltzeko eta horretarako lur sail baten erabiltzeko (THPn 38. zenbakiko lekua), bertako auzokideen onespenerekin.

Lan horien egiteko lur sailen eskuratzeko notario aktak ez dira oraindik eginak izan. Egoera hori zuzendu behar da.

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- Egoera horren zuzentzeko, lanen egiteko baliatu diren lurak euro sinbolikoaren truke eskuratzea, Daniel BELIN (30 m²) jaunaren eta COSSE - JOUANNY (148 m²) jaun andereen lur sailak izanik, orotara 178 m²koak.
- Lur sailak eremu publikora pasatzea.

Aho batez onartua.

56- Baratze bideko lur sail baten eskuratzea: eremu publikora pasatzea eta sailkatzea - inkesta publikoaren abiatzea (Magis jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- Claudine BELLECAVE anderearen jabegoa den Baratze Bideko 88 m²ko eskuratzea, 7 000€ko obren truke harrizko hesi baten egiteko (1.30 m-koa) bidearen luzeran, eta xeilaren zutoinen ezartzeko.
- Inkesta publiko baten abiatzea lur saila eremu publikora pasatzeko.

Aho batez onartua.

57 – SDEPA: Haurtzain auzoko argiteria publikoaren eraberritzea (Magis jaunak aurkeztua).

« Rénovation EP (Département) 2020 » programaren baitan, Herriak Syndicat d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (SDEPA) partzuergoari eskatu dio Haurtzain auzoan argiteria publikoa eraberritzeko lanetarako ikerketa egitea.

Herri Biltzarrari proposatu dio lan horien gastuen zenbatekoa eta finantzazioa bozkatzea.

Obraren zenbatekoa ZG	71 826,28 €
Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren parte hartzea	12 000,00 €
F.C.T.V.A.....	11 352,37 €
Herriaren parte hartze lanetan	45 852,51 €
Herriaren parte hartzea kudeaketa gastuetan.....	2 621,40 €

Aho batez onartua.

58 – SDEPA: Haurtzain auzoko argiteria publikoaren eraberritzearekin loturik, Orange enpresaren ingeniari zibila (Magis jaunak aurkeztua)..

Magis jaunak adierazi du « Génie civil communications électroniques option A » 2019 programaren baitan, Herriak Syndicat d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (SDEPA) partzuergoari galdegin diola Haurtzain auzoan argiteria publikoari loturiko Orange-n ingeniari zibileko lanen ikerketa egitea.

Herri Biltzarrari proposatu dio lan horien gastuen zenbatekoa eta finantzazioa bozkatzea.

Obraren zenbatekoa ZG	120 509,31 €
Herriaren parte hartze lanetan	116 111,16 €
Herriaren parte hartzea kudeaketa gastuetan.....	4 398,15 €

Aho batez onartua.

59 – SDEPA: Haurtzain auzoko puxika fluoreszenteen ordeztea (Magis jaunak aurkeztua).

« Remplacement Ballons Fluorescents (SDEPA) 2018 » puxika fluoreszenteen ordezteko programaren biatan, Herriak Syndicat d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (SDEPA) partzuergoari eskatu dio Haurtzain auzoan puxika fluoreszenteen ordezteko lanei buruzko ikerketa egitea.

Herri Biltzarrari proposatu dio lan horien gastuen zenbatekoa eta finantzazioa bozkatzea.

Obraren zenbatekoa ZG	33 328,45 €
Partzuergoaren parte hartzea	8 000,00 €
F.C.T.V.A.....	5 267,67 €
Herriaren parte hartze lanetan	18 844,41 €
Herriaren parte hartzea kudeaketa gastuetan.....	1 216,37 €

Aho batez onartua.

60 – CAPAQUI erosketaren publikoaren zentrala: (AMPE) Akitaniako Merkatu Publikoaren Elkarterako bazkidetza (Auzapezak aurkeztua).

Akitaniako Merkatu Publikoaren Elkartek (AMPE) baliabideen bateratze eta ekonomia eraginkortasun urraspidea segitzea erabaki duten erosle publikoaren arteko lankidetzaren garatzen du. Horretarako, erosketaren publikoaren zentrala eskaintzen du.

Elkarte horren zerbitzuez baliatzeko, Herri Biltzarrari eskatu dio Auzapezari baimena ematea Kanbo elkarteko bazkide izan dadin, urtean 50 €ko kuota batekin.

Gehiengoz onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul eta Lilian Hirigoyen.

61 – Pirinio Atlantikoetako Tokiko Sozietate Publikoaren (TSP/SPL) sortzea (Auzapezak aurkeztua).

Kolektibitateak laguntzeko xedearekin, eta antolamendu nola eraikuntza alorretan erabakitzen laguntzeko elementuak eskura ditzaten, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak horretarako sortu den Tokiko Sozietate Publikoan (TSP/SPL) parte hartzea proposatzen du. Kide diren kolektibitateei

antolamendu eta eraikuntza proiektuetarako ingeniaritza eskaintzeko xedea du. Eta hori kasik kudeaketa-egitura baten kasuan bezala egingen da merkatuen gauzatzeko (bereziki lanen aurreko ikerketak, programazioa, obra sustatzaileari laguntza eginkizuna edo ekintzen kudeaketa ikerketa motakoak) deialdi publikorik egin behar izan gabe.

Auzapezak proposatzen du Herria TSPren kapitalean sartzea, 100€ko 5 ekintzentzat, hots 500€ orotara.

Herri Biltzarrari proposatu dio Herriak TSPan 500€rentzat parte hartzea, azalpen ohar sintetikoan eman diren TSPren estatutuak onartzea, eta Christian Devèze jaun Auzapeza izendatzea herriko ordezkari iraunkor gisa TSPko akziodunen biltzar nagusirako.

Gehiengoz onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul eta Lilian Hirigoyen.

62 – San Laurendi elizako organoa: ad hoc batzorde baten osatzea (Auzapezak aurkeztua).

2017an San Laurendi elizaren zaharberritzeko lanak abiatu ziren eta xede horretan Herriak, 2019ko urriaren 28ko erabakiz, elizari egokitua izango zen organo berri baten sortzeko eta eraikitzeko ikerketak abiatu ditu, eta organoak erabilera kultural eta kultuzkoa izan dezan.

Orain, obra sustatzaileari dagokio organo egilea hautatzea.

Hautatze prozedura bi fasetan egiten da: «hautagaitza» fasea eta «eskaintzen aurkezte» fasea.

Deialdiaren bi faseentzako «ad hoc batzordea» izanen da obra agintariaren laguntzeko.

Herri Biltzarrari proposatu dio ad hoc batzorde horren osaketaz deliberatzea azalpen ohar sintetikoan aurkeztu denaren arabera.

Aho batez onartua.

63 – Arnagarako sartze prezioei buruzko emendakina (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio Arnagarako sartze prezioei buruzko emendakina onestea, azalpen ohar sintetikoan azaldua denaren arabera.

Emendakin horretan zehazten dira bisitari batek txartelak on-line erosi dituenean zer kasutan itzuliko zaion dirua.

Aho batez onartua.

Hilobi eta columbariumen aurrekontu erantsiari buruzko 1. aldaketa erabakia (Aizpuru andereak aurkeztua)

Hilobi baten itzultze eskaera bati erantzuteko eta jabeari behar den dirua itzultzeko, Herri Biltzarrari eskatu zaio hilobi eta columbariumen aurrekontu erantsiaren 1. aldaketa erabakia onartzea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Aho batez onartua.

65 – Lur funtsen zergaz libratzea (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu zaio funtsen zergaren bi urteko libratzea jabego eraikien artean etxebizitzarako eraikuntza berrientzat onartzea, azalpen ohar sintetikoan azaldua denaren arabera.

Herri Biltzarrak gehiengoz onartzen du lur funtsen gaineko zerga jabego eraikien artean etxebizitzarako eraikuntza berrientzat osoki libratzea, obra bukatu eta ondoko bi urteetan.

Christian Devèze, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Vincent Goytino, Corinne Othatcegy, Jean-Jacques Lassus, Roger Barbier, Carmen Gonzalez, Lilian Hirigoyen-ek kontra bozkatu dute.

Peio Etcheleku jauna gelan sartu da.

66 – Kontularitza nomenklaturaz aldatzea: M57-ra pasatzea (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu zaio 2022ko urtarrilaren 1etik goiti M14 nomenklaturatik M57 kontularitza instrukziora pasatzeari buruz deliberatzea, azalpen ohar sintetikoan azaldua denaren arabera.

Aho batez onartua.

67 – Langileria: Kudeaketa Zentroaren behin-behineko misioen polorako harpidetza (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatu zaio herriak kudeaketa Zentroko behin-behineko misioen poloan harpidetza hartzea, azalpen ohar sintetikoan azaldua denaren arabera.

Aho batez onartua.

68 – Langileria: enplegu sortzea (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari proposatu zaio denbora ez osoko (25 oren astean) Ama Eskoletako Lurralde Langile Berezitu (ATSEM) postu iraunkor baten sortzea, 2021eko azaroaren 1etik goiti.

Aho batez onartua.

69 – Uholde Arriskuen Prebentzio Planari buruzko iritzia (UAPP/PPRi) (Amstoy andereak eta Magis jaunak aurkeztua).

Frantziako Ingurumen kodeko R.562.7 eta Pirinio Atlantikoetako prefekturaren 2016ko apirilaren 20ko preskripzio ordenantzaren 6. artikuluen arabera, Herri Biltzarrari eskatu zaio bere iritzia eman dezan Uholde Arriskuen Prebentzio Plan proiektuaz, azalpen ohar sintetikoan azaldua denaren arabera.

Gehiengoaren aldeko iritzia.

Argitxu Hiriart-Urruty, Nathalie Aïçaguerre, Philippe Bacardatz, Amaia Beyrie-k kontra bozkatu dute.

Bozkatu ez dutenak: Lilian Hirigoyen, Michel Duthilleul.

70 – Aturri behereko Uren Antolamendu eta Kudeaketa Eskema (UAKE/SAGE) (Magis jaunak aurkeztua).

Frantziako Ingurumen kodeko R 181-38 artikulua arabera, Herri Biltzarrari eskatu zaio bere iritzia eman dezan Institution Adour-ek aurkeztu duen eskaeraz, non azalpen ohar sintetikoan azaltzen den Aturri Behereko Uren Antolamendu eta Kudeaketa Eskema onestea eskatzen duen.

Gehiengoaren aldeko iritzia.

Jean-François Lacostak ez du bozkatu.

71 – ToLFEP (EPFL): SCA Dieudonne eta konpainia sozietatearen ondasunen eskuratzeko esku hartzea (Magis jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu zaio azalpen ohar sintetikoan azaldua den bezala « centre Beaulieu » deituriko esku hartze hitzarmenaren edukiaz deliberatzea. Hitzarmenaren xedea delarik Kanbo herria eta ToLFEP arteko lankidetzak baldintzak zehaztea "SCA Dieudonne et Cie" sozietatearen ondasunen eskuratzeko

Aho batez onartua.

72 – Dirulaguntza (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu zaio Kanbo Gaineko besta komiteari 2 500 €ko dirulaguntza baten onartzea, jardueren berrabiatzearentzat egin egitaraua ikusirik.

Aho batez onartua.

Auzapezaren erabakien komunikazioa (Auzapezak aurkeztua).

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, Auzapezak 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarrak onartu dizkion eskumen delegazioen esparruan hartu dituen erabakien berri eman dio biltzarrari, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den bezala.

Informazioak (Magis jaunak aurkeztua).

ToLFEPekin eraman den lanaren ondotik, eta THPko sail eraikigarrien analisia egin-eta, Magis jaunak Herriaren lur funtsen estrategia aurkeztu du, batetik arreta berezia merezi duten sektoreak eta bestetik «egituratzaileak» diren etxebizitza hutsak zehaztuz.

Solasgai guztiak landurik, saioa 22:15ean bukatu da.